**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **07. Lehendakaritza**<br>**07. *Presidencia*** | **03.** Lege Aholkularitza eta Administrazio Orokorra<br>**03.** *Asesoría Jurídica y Administración General* | **120.201** Lege Aholkularitza<br>**120.201** *Asesoría Jurídica* |

Lehendakaritza Saileko Lege Aholkularitza Zerbitzua administrazio-unitatea da eta, oro har, berari Bizkaiko Foru Aldundiaren aholkularitza eta defentsa juridikoa dagozkio soilik.

El Servicio de Asesoría Jurídica del Departamento de Presidencia es la unidad administrativa a la que corresponde, con carácter único, general y exclusivo, la defensa jurídica y el asesoramiento de la Diputación Foral de Bizkaia.

Alabaina, zehaztasun handiagoa egoteko honako hau ezarri ahal da:

- Lehendakaritza Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua Bizkaiko Foru Aldundiak orokorrean Zuzenbideari buruz kontsultatzen duen eta aholkua eskatzen dion zentroa dela.
- Zerbitzu honi dagokiola Foru Aldundia Justizi Auzitegien aurrean eskaera guztietan defendatu eta ordezkatzea. Hala ere, Auzitegietako Prokuradoretza Zerbitzuak erabili ahalko dira, erabilera hori xedatzen bada.
- Era berean, zerbitzu honi dagokio beste Herri Administrazioen erakundeen aurrean Bizkaiko Foru Aldundiaren eskubideak eta interesak defendatzea.
- Lege Zerbitzuak bere gain hartuko dituela Auzitegiekiko, Fiskaltzarekiko, Justizi Administrazioaren organo laguntzaileekiko eta Abokatuen Elkargoarekiko harremanak ere.

1. Kontsulta-funtzioak barnean harturik du Foru Aldundiaren Sail guztien lege-aholkularitza, ahozkoa eta idatzizkoa.
2. Aholkulari-funtzioan, honakook dagozkio Lege Aholkularitza Zerbitzuari:
   a) Zuzenbideari lotutako txostenak bidaltzea, bidaltze hori indarrean dauden arauek berariaz xedatuta manuzkoa den arazoetan eta Foru Aldundiak, diputatu nagusiak edo foru diputatuek hori egokietsi edo eskatzen duten gainerako kasuetan.

Ahora bien, a mayor detalle se puede establecer:

- El Servicio de Asesoría Jurídica del Departamento de Presidencia, es el centro consultivo y asesor, de carácter general, de la Diputación Foral de Bizkaia en materia de Derecho.
- Corresponde a este Servicio la defensa y la representación de la Diputación Foral ante los Tribunales de Justicia en todas sus instancias, sin perjuicio de la utilización de los Servicios de Procuradores de los Tribunales cuando así se disponga.
- Igualmente, corresponde a este Servicio la defensa de los derechos e intereses de la Diputación Foral de Bizkaia ante los distintos organismos de las otras Administraciones Públicas.
- El Servicio Jurídico tendrá también a su cargo las relaciones con los Tribunales, el Ministerio Fiscal, órganos auxiliares de la Administración de Justicia y el Colegio de Abogados.

1. La función consultiva comprende el asesoramiento jurídico, verbal y por escrito, de todos los Departamentos de la Diputación Foral.
2. En la función asesora compete al Servicio de la Asesoría Jurídica:
   a) La emisión de informes en derecho de todos aquellos asuntos en que sea preceptivo por disposición expresa de las normas vigentes, así como también en los demás casos en que la Diputación Foral, el Diputado General o los Diputados Forales, lo estimen conveniente y lo soliciten.

b) Ebazteko proposamen eta irizpen juridikoak egitea,

c) Foru Aldundiaren zerbitzuetan irizpide juridikoak bateratzea.

3. Auzibide-funtzioan honakook dagozkio Lege Aholkularitza Zerbitzuari:

a) Aldundia Auzitegien aurreko judizioan defendatzea eta epaileei, auzitegiei eta Herri Erakundeei jartzen zaizkien erreklamazioak, errekurtsoak eta auziak juridikoki zuzentzea.

b) Aldundiaren defentsa auzibideko arazo guztiei buruzkoa izango da. Berdin da zein den Jurisdikzio eskuduna. Era berean, defentsa hori Foru Aldundia alde duten edo Foru Aldundiari interesatzen zaizkion administrazio-errekurtsoei eta ekonomia-administraziozko erreklamazioei begirakoa da.

c) Defentsak barnean honakook hartuko ditu: eskaera edo gora-behera guztietako zuzendaritza juridiko profesionala, Aldundiaren ordezkari diren prokuradoreekiko edo Aldundiak auziak edo errekurtsoak agindu dizkien abokatuekiko bulegoa eta haiek kontrolatzeko beharrezkoa dena.

d) Horren ondorioz, Lege Aholkularitza Zerbitzuak bere gain hartu beharko ditu aharren azterketa, mota guztietako idatzien idazketa, Aldundiaren eskubideetarako onak diren kudeaketen sustapena, frogen zuzendaritza eta diligentzietako eskuharmena eta ikustaldirako laguntza. Horretarako berdin da laguntza hori arazo nagusirakoa zein gertakarietarakoa izatea.

b) La formulación de dictámenes y propuestas de resolución de carácter jurídico, y

c) La unificación de los criterios jurídicos en los distintos servicios de la Diputación Foral.

3. En la función contencioso corresponde al Servicio de Asesoría Jurídica:

a) La defensa de la Diputación en juicio ante los Tribunales y la dirección jurídica de los pleitos, recursos y reclamaciones que se interpongan ante los Jueces, Tribunales y Organismos Públicos.

b) La defensa de la Diputación se referirá a todos los asuntos de carácter contencioso, cualquiera que sea la Jurisdicción competente y a los recursos administrativos y reclamaciones económico-administrativas en los que sea parte o esté interesada la Diputación Foral.

c) La defensa comprenderá la dirección jurídica profesional en todas sus instancias o incidencias, el despacho con Procuradores que representen a la Diputación, o con Abogados a los que la Diputación haya encargado los pleitos o recursos, y todo cuanto sea preciso para el control de los mismos.

d) En consecuencia, el Servicio de Asesoría Jurídica tendrá a su cargo el estudio de las contiendas, la redacción de toda clase de escritos, promoción de cuantas gestiones convengan al derecho de la Diputación, dirección de las pruebas e intervención en sus diligencias y asistencia a la vista, ya sean de incidentes o del asunto principal.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **07.** **Lehendakaritza**<br>**07.** ***Presidencia*** | **03.** Lege Aholkularitza eta Administrazio Orokorra<br>**03.** *Asesoría Jurídica y Administración General* | **120.201** Lege Aholkularitza<br>**120.201** *Asesoría Jurídica* |

4. Zerbitzuak honako aferok ezagutu eta tramitatuko ditu:

   a) Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean ekintzei bide emateko edo haren kontrako eskarien ondorioz edozein sailetan egiten diren espedienteak.

   b) Norbanakoek jarritako eskariei amore emateari, Administrazioak bultzatutako ekintza edo errekurtsoei atzera eragiteari eta hel egindako egintza eta xedapenen ondoreak eteteari lotutako espedienteak.

   c) Zuzenbidezko adierazitako egintzak kaltegarri adierazteko hasten diren jarduketak.

   d) Aldundiaren kontra zuzenbide pribatuan eta lan-zuzenbidean oinarritutako ekintzak burutu osteko administrazio bidezko erreklamazioak.

   e) Bizkaiko Foru Aldundiak zigor bezala duen kosten ordainketari buruzkoak.

5. Era berean, Zerbitzuari dagokio judizio-ekintzak eta judizioz kanpokoak burutzeari lotutako akordio eta ebazpenak hartzeko proposamenak tramitatzea. Ekintzok arazo zibiletara, arazo kriminaletara, administrazioarekiko auzibide-arazoetara, lan-arazoetara eta administrazio-arazoetara agertzekoak dira.

Lege Aholkularitzaren zerbitzuak Foru Aldundi osoak amankomunean ditu eta erabili ahal ditu. Hala ere, badaude Foru Sailetan aholkularitza-organoak. Organook beti jardun beharko dute Lege Aholkularitzarekiko elkarlanean. Izan ere, lege-aholkularitza hori eskudun bakarra izango da administrazio-errekurtsoak ebazteko proposamenak egiteko eta Bizkaiko Foru Aldundiak edozein posizio prozesaletan esku hartzen duen judizio-prozeduretan zuzendari teknikoa izateko.

4. El Servicio conocerá y tramitará los siguientes asuntos:

   a) Expedientes que se instruyan en cualquier dependencia de la Diputación Foral de Bizkaia, para entablar acciones en nombre de la misma, o que surjan como consecuencia de demandas deducidas contra ella.

   b) Expedientes relativos a allanamiento de las demandas interpuestas por particulares, desistimiento de acciones o recursos promovidos por la Administración y suspensión de efectos de los actos y disposiciones recurridos.

   c) Actuaciones que se incoen para declarar lesivos los actos declarativos de derecho.

   d) Las reclamaciones en vía administrativa previo el ejercicio de toda clase de acciones fundadas en el derecho privado y laboral contra la Diputación.

   e) Relativos al pago de costas a que se fuere condenada la Diputación Foral de Bizkaia.

5. Corresponde también al Servicio tramitar las propuestas para la adopción de acuerdos y resoluciones relativas al ejercicio de acciones de toda clase, judiciales y extrajudiciales, para personarse en asuntos civiles, criminales, contencioso-administrativos, laborales y administrativos.

Los servicios de la Asesoría Jurídica son comunes y generales a toda la Diputación Foral, sin perjuicio de la existencia de órganos de asesoramiento en los distintos Departamentos Forales que en todo caso, deberán siempre actuar en perfecta coordinación con la Asesoría Jurídica que será la única competente para formular propuestas de resolución de recursos administrativos y para ostentar la dirección técnica de todos los procedimientos judiciales en los que, en cualquier posición procesal, intervenga la Diputación Foral de Bizkaia.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **07. Lehendakaritza**<br>**07.** ***Presidencia*** | **03.** Lege Aholkularitza eta Administrazio Orokorra<br>**03.** *Asesoría Jurídica y Administración General* | **120.201** Lege Aholkularitza<br>**120.201** *Asesoría Jurídica* |

Lege Aholkularitza Zerbitzuari dagokio Foru Aginduak bere arauzko ahalmenak burutzeko ematen dituen xedapen orokorren legezkotasunaren barne-kontrola. Horretarako, eta Foru Aldundiari aurreproiektua bidali aurretiko tramite bezala, hura egin duen Sailak. Lege Aholkularitzari bidali beharko dio. Lege Aholkularitzak aurreproiektu horren indarreko legezkotasunerako egokitzapenari buruzko beharrezko irizpena emango du.

Legezkotasun hori Lege Aholkularitzak kontrolatuko du. Hala ere, kontutan hartu beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen xedapen orokorren gainean jartzen diren goragoko lerruneko beste kontrolak.

Martxoaren 30eko 57/1999 Foru Dekretuari (BAO, 1999-4-13koa, 67 zenb.) jarraiki, Lege Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoko Lege Batzorde Aholkulariari eratxikitako eginkizunak betetzen ditu (20/2000 Foru Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarria).

Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 29ko 102/10 Foru Dekretuaren bidez Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala (KEAAF) sortu zen, abuztuaren 5eko 34/2010 Legea betetzeko (lege horrek ondokoak aldarazi zituen: 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa). KEAAF Aldundiko Lehendakaritza Sailari atxikita dago, baina ez dago haren egitura hierarkikoan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 30eko 136/2010 Foru Dekretuaren bidez KEAAFeko burua eta kideak izendatu ziren (denak dira Lege Aholkularitza Zerbitzuko legelariak).

Corresponderá al Servicio de Asesoría Jurídica el control interno de la legalidad de las disposiciones generales que dicte la Diputación Foral en el ejercicio de sus facultades reglamentarias. A tal efecto, y como trámite previo a la elevación del anteproyecto a la Diputación Foral, el Departamento que lo haya elaborado lo remitirá a la Asesoría Jurídica que emitirá el correspondiente dictamen sobre la adecuación del mismo a la legalidad vigente.

Este Control de legalidad se ejercerá por la Asesoría Jurídica sin perjuicio de aquellos otros de rango superior que se impongan a las disposiciones generales que dicte la Diputación Foral de Bizkaia.

Por virtud del Decreto Foral 57/1999, de 30 de Marzo, (BOB 67 de 13-4-1999) el Servicio Jurídico ejerce las funciones atribuidas a la Comisión Jurídica Asesora del Territorio Histórico de Bizkaia, (Disposición Adicional Primera del Decreto Foral 20/2000).

Mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia nº 102/10, de 29 de septiembre, se creó el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales (TAFRC) en cumplimiento de la Ley 34/2010, de 5 de agosto, que modifica las Leyes 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, 31/2007, de 30 de octubre y 29/1998, de 13 de julio. El TAFRC está adscrito al Departamento Foral de Presidencia sin integrarse en su estructura jerárquica.

En virtud del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 136/2010, de 30 de noviembre se designa presidente y vocales del TAFRC, siendo todos los designados letrados del Servicio de Asesoría Jurídica.